


Mundua
pitzatuta dago
baina hantxe
gabiltza oinez



SINOPSISIA

Alabarekin nola komunikatu ez dakien aita batek paperezko hegazkin bat bidaltzen dio egunero balkoitik agur esateko. Hegazkinetan idatzitako mezuen bidez, aitak literatura-misioak jartzen dizkio alabari, liburuzain zorrotz baten konplizitatearekin argitu ditzan. Horrela, liburuen eta bizitzaren arteko lotura ezagutuko du neskatoak.

Urte asko geroago, orain idazlea den alaba, liburutegira itzuliko da bere lehenengo liburuan jaso duen iniazio-esperientzia hori kontatzeko.





OBRAREN ASMOAK

Lehenago edo geroago, arrakala bikoitz bat irekitzen da gurasoen eta seme-alaben artean, arrakala emozionala eta bizitzakoa. Obra honen kasuan, amaren absentiak aitaren eta hamar urteko alabaren arteko komunikazioa zailtzen duen fase bat eragingo du. Orduan aitak literaturara jotzea erabakiko du hautsi diren zubiak berriz eraikitzeko.

Obraren helburua liburutegia munduari irekitako leiho sorta gisa erakustea da. Liburuaren edukiontzia huts bat izatetik harago, liburutegia pozez betetzen gaituen espazio boteretsu gisa aldarrikatzen da, begirada zabaltzen, elkar ezagutzen eta hobeto bizitzen laguntzen digun espazio bat; istorioen hazitegi amaigabe bat, beste geografia eta garai batzuekin lotzen gaituzten istorioak, edo gure kontraesan eta dilemen ezagutzan sakontzera eramaten gaituztenak, istorio haiek beren haragietan pairatu zituzten pertsonaien bitartez. Liburutegia protagonista bat gehiago da, arimaren ospitale bat eta esploratu gabeko lurralde bat, berez magikoa den espazio bat; babeslekua eta, aldi berean, bertan galtzeko gogoia ematen digun basoa. Mota guztietako istorio eta pertsonaienezko lekua da liburutegia, eta liburuak alfabetikoki ordenatuta egoteak ez du bere lana hain ondo egiten duen zoriaren rola gutxiesten, eta hala, gure eskuetara iristen dira, ustekabean, bilatzera joan ez ginen liburuak. Hori da liburutegien magia hein batean: altxorra —Poeren gutuna bezala— denen begien bistan dago, eta aldi berean, ezkutuan.

Argudioa, aitaren eta alabaren arteko komunikazio-haustura, pixkanaka ehuntzen joango da literatura-aipuen, kontakizun laburren eta aitak alabari bikarioki eta liburuzainaren laguntzaz helarazten dizkion poemien bitartez. Horrela, helduen munduak hari baten muturra eskainiko dio neskatoari eta hark tira egingo dio bere ondorioetara iristeko.

Istorioen istorio honek hainbat egileren testu txikiak harilkatuko ditu, hala nola Jutta Bauer, Sylvia Plath, Julio Cortázar edo Chinua Acheberenak, istorioak kontatzeko zaletasuna eta haiek entzuteko plazera bultzatuz ingurune komunikatibo partekatu batean. Izan ere, gizakia mundua kontatzen duen eta bere burua kontatzen duen norbait besterik ez da; lehen arnasetik azken hatseraino etengabe aldatzen doan istorio baten haragitzea.

Partekatutako istorio txiki horien bidez, bideak ibilgarriago bihurtzen dira, eta mundua irakurterrazago, ibiltzea eta irakurtzea, funtsean, gauza bera direla erakutsita.

FITXA ARTISTIKOA

Egilea
HARKAITZ CANO

Zuzendaritza eta espazio eszenikoa
FERNANDO BERNUÉS

Antzezleak
GARAZI URKOLA
SARA COZAR
ASIER HERNÁNDEZ

Zuzendari laguntzaileak
IÑIGO SANTACANA / ANDREA GALLEGO

Jantzitegia
ANA TURRILLAS

Irudiak
ISABEL HERGUERA

Argiztapena
DANI BERNUÉS


Koordinazio teknikoa
ACRÓNICA PRODUCCIONES

Administraritza
MAITE GORROTXATEGI

Ekoizpen exekutiboa
ANE ANTOÑANZAS

Ekoizpena
PAOLA EGUIBAR

Banaketa
PORTAL 71







ZUZENDARITZA eta ESPAZIO ESZENIKOA

Fernando Bernués Gambarte, (Donostia, 1961) Tanttaka Teatroa eta Tentazioa Produksioakeko sortzaileetako bat izanik, arrakastaz aritu da arlo ezberdinetan, antzerkia, zinema, telebista... Bere lanen artean, zinemari dagokionez, Kutsidazu bidea, Ixabel edo Soinujolearen semea daude besteak beste; eta telebistan, hurrengo telesail famatuena zuzendari edo zuzendari kide izandakoa da: Maite, Ertzainak, Mi querido Klikowsky eta Mugaldekoak.

Arte eszenikoetan erreferente bat da gaur egun, bere jarduera profesional luze eta ezaguna dela eta; bere lan famatuena artean, El Florido Pensil, Novecento el pianista del océano, Paradero Desconocido, La dona justa, Contra el viento del norte, Soinujolearen semea, Muxua, Uda gau bateko ametsa (Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuko proiektu goraiatuena), Soka edo Sisiforen paperak, besteak beste.



EGILEA

Harkaitz Cano, (Donostia, 1975) Nobelagile bezala ezagunagoa (Twist, Fakirraren ahotza), ipuinak (Neguko zirkua, Beti oporretan) eta poema-bildumak ere argitaratu ditu (Nor bait dabil sute-eskaileran, Pozaren erdia). Irudiarekiko bere kezka aletu zuen Zinea eta literatura: begiaren ajeak lanean nahiz Kandelikara, Luis Buñueli buruz egindako saiakera librean. Zine ikastaroak eman izan ditu EQZEan eta Chicagoko Unibertsitatean. Dozena bat hizkuntzatan irakur daitezke bere liburuak.



GARAZI URKOLA

Garazi Urkola (Villabona 1998). Haurra zenetik interes handia izan zuen arte diziplinekiko, bereziki musika eta antzerkiarekiko. Hala, Dantzertin, Euskadiko goi mailako Arte dramatikoko eta dantza zentroan interpretazio ikasketak egitea erabaki zuen. Bere lehen lan profesionala 2017an izan zen Arriaga antzokiak ekoiztu zuen Monteverdiren madrigalen egokitzapen eszeniko batean. 2019an, egin zuen lehen aldiz lan zineman Akelarre filmarekin eta horren ostean hainbat proiektutan hartu du parte, besteak beste Las buenas compañías, Pelikula baten bila edo Perpetua felicidad laburmetraian. Azken urtean Go!azen telesailako 11. denboraldian aritu da pertsonaia nagusietako bat interpretatzen. Ikastaro desberdinak egiten jarraitzen du eta proiektu berrietan dabil lanean.

SARA CÓZAR

Sara Cózar, Ordizia, 1980. Sara Cózarrek 2001ean hasi zuen ibilbide profesionala Goenkale telesailan (EiTB), eta zortzi denboraldi egin zituen bertan. Era berean, interpretazioa ikasteari ekin zion Donostiako Arte Eszenikoen Tailerrean. 2002an parte hartu zuen lehen aldiz antzezlan batean, hain zuzen Garbiñe Losadak zuzendutako Las mujeres de verdad tienen curvas delakoan, eta, ondoren, besteak beste, Mujeres en sus camas, El hijo de la novia eta Uda gau bateko ametsa etorri ziren.

Telebistan hainbat telesail eta programatan lan egin du 2001etik. Azken lanak Jabi Elortegik zuzendutako Aitaren etxea, Koldo Almandozen Hondar ahoak eta David Pérez Sañudoren Alardea izan dira. 2005ean parte hartu zuen lehen aldiz film batean: Kutxidazu bidea Ixabel. Ondoren, Bypass, Izarren argia edo Agur Etxebeste eta Lasa eta Zabala filmetan egin zuen lan.

Urte hauetan zehar ez dio trebatzeari utzi eta hainbat interpretazio-ikastaro eta -tailer egin ditu. Aurkezle aritu da hainbat gala eta ekitalditan, baita zuzendari-laguntzaile ere Tanttaka Teatroa eta Txalo produkzioak etxeekin.

ASIER HERNANDEZ


Eloy de la Iglesiaren Otra vuelta de tuerca (1985) filmean hasi zuen aktore ibilbidea. Zineman aritu da (Loraldia, Mensaka, Yoyes, Igelak, Handia, El hijo del acordeonista, Hil-kanpaiak, Irati...), baita antzerkian (Tartufo, La Cacatúa Verde, Mujeres en sus camas, Comida para peces, El hijo del acordeonista, Sisiforen Paperak, Mi hijo solo camina un poco más lento, Toto...) eta telebistan ere (A Las once en casa, Goenkale, El Asesinato de Carrero Blanco, Velvet, Balbemendi, Ihesaldia, Ondar Ahoak, El internado, Itsaso...). Etengabe trebatu da, eta ibilbide horretan azpimarratzekoa da Madrilgo Juan Carlos Corazza aktorearen estudioan jasotako prestakuntza osoa. Interpretazio-sariak jaso ditu A dar bakar eta CIRILO film laburrengatik, baita Amor & Libertad (2003), Amor & Locura (2007) eta Kill, Kerra eta Karma (2020) testu dramatiko laburrengatik ere. Alfonso Sastrenen CARGAMENTO DE SUEÑOS (2006) antzerki-bakarrizketa zuzendu du, baita ROSA (2008) film laburra eta Brasilen saritutako SEXUMUSU (2010) gazteentzako sexu-hezkuntzako bideoak ere. Telebistako eta antzerkiko zuzendari laguntzaile gisa lan egin du, eta casting-laguntzaile eta interpretazio-irakasle gisa BINAHI AKADEMY eskolan (Donostia).





Tant Takka


teatroa






Mundua pizatuta dago baina hantxe gabiltza oinez

Epilata: HARKAITZ CANO
Zuzendaritza: FERNANDO BERNUES
Aktoreak: MIREN ARRIETA, SARA COZAR, ASIER HERNANDEZ




El món està trencat però es pot caminar

Autor: HARKAITZ CANO
Versió valenciana: JULI DISLA
Direcció: FERNANDO BERNUES
Amb: CARLA PASCUAL, MANUEL MAESTRO, LAURA ROMERO



O mundo está roto pero pódese camiñar

Autor: HARKAITZ CANO
Versión galega: CÁNDIDO PAZÓ
Dirección: FERNANDO BERNUES
Con: PAULA PIER, SUSAN SAMPEDRO, SALVADOR del RIO



El mundo está roto pero se puede caminar

De HARKAITZ CANO
Dirección: FERNANDO BERNUES
Con: IRATXE GARCIA URIZ, LEIRE RUIZ, TXORI GARCIA URIZ

